


# Europar Batasunak keinu egin die nuklearrei

Martxoaren 8 eta 9an eztabaidatuko dute Europar Batasuneko gobernuburuek planetaren berotzeari eta europar kontinentearen energia mendekotasunari aurre egiteko garatu beharko den energia politika bateratua. Energia berriztagarriak sustatzearen aldeko apustua egin arren, energia nuklearrari ere keinua egin zaio eta sortu da berriz ere eztabaida.

Daniel Udaltz



NUCLEONOR

Garoñako zentral nuklearra.

**HITZORDU HONETAZ GAIN,** energia nuklearrari dagokionez garrantzitsua da Europako Batzordeak zabaldu zuen “Europarentzako energia politika” izeneko agiri estrategikoa. Bertan, alde batetik energia berriztagarriak sustatzen dira, baina beste aldetik energia nuklearraren garapenaren aldeko keinua egiten da. Hain zuzen ere, keinu horrek poza sortu du nuklearren aldeko eta presio taldeen artean eta beste behin ere energia nuklearraren inguruko eztabaida piztu da europar nahiz euskal gizartean. Talde ekologista askok, bestalde, energia mota horren aurkako argudioak berretsi dituzte.

Badira gai korapilatsu batzuk herrialde guztien bat etortzea lortzen ez dutenak; esate baterako, energia nuklearra edo eraginkortasuna eta lehiakortasunaren hobe beharrez monopolio handiak zatitu beharra. Europar Batasunaren barruan eztabaida serioa egin beharko da gutxieneko oinarriak adosteko. Aipatutako agiriaren arabera, Europaren etorkizun politikoa gero eta lotuagoa dago kontinenteak hainbat motatako erronka energetikoei aurre egiteko daukan gaitasunarekin.

**Energia berriztagarrien potentziala** “Energia merkeko egunak bukatu dira Europarentzat”. Esaldi horrekin

hasten da Batzordearen “Europarentzako energia politika” agiria. Agiri horrek hainbat neurri biltzen ditu erronka bikoitz bati aurre egiteko. Hona hemen erronkak: batetik, CO<sub>2</sub> isurketek eragindako planetaren beroketa gelditzea, eta bestetik, kanpoarekiko mendekotasuna gutxitzea. Aurreikusitako neurrien artean daude energia berriztagarriak sustatzea, kontsumoa gutxitzea, energiaren benetako merkatu lehiakorra sortzea (monopoliorik gabe) eta karbonoaren isurketa maila txikiak ahalbidetzen dituzten teknologia berriak bultzatzea. Agirian energia nuklearra aipatzen da helburu horiek lortzeko bide-

## Europar Batasunak 152 zentral nuklear dauzka

Europako Batzordeak gogorarazi du 27 estatu kideetatik 15ek dauzkatela errektore nuklearrak (guztira 152). Denen buruan dago Frantziako Estata; elektrizitate guztiaren %80 energia iturri honetatik lortzen du. Espainiako Estatuan sei zentral nuklear ari dira lanean; horien artean Garoña, 2009an ixtekoa dena. Europar Batasun osoa kontuan hartuta, energia nuklearretik elektrizitatearen herena



Alemaniaiko Biblis herriko zentrala.

sortzen da, eta Batzordeak ohartarazi du tasa horri eusteko ezinbestekoa dela martxan dauden planten bizitza erabilgarria luzatzea edo beste berri batzuk eraikitzen hastea. Bruselak adierazi du estaturen batek energia nuklear gutxiago erabiltzea erabakitzen badu, ezinbestekoa izango dela murrizketa hori konpentsatzea elektrizitatea sortzeko ikatz kopuru txikia behar duten beste energia batzuk erabiliz.

rik eraginkorrenetakotzat, nahiz eta baieztapen hori argi eta garbi egitea saihesten den.

Energia berriztagarrien gehikuntza dago adostasun mailarik handienetakoa. Bruselaren helburua da 2020an kontsumituko den energia osoaren %20 nagusiki energia hidrauliko, eoliko, eguzki energia, biofuel, eta biomasak osatzea –gaur egun energiaren %7 besterik ez da lortzen bide horiek erabiliz–. Aipatutako agiriaren arabera, energia berriztagarriek potentzial handia dute, batez ere elektrizitatea sortzeko, eta potentzial horretaz baliatuz, 2020an energia elektrikoaren herena sor liteke hala-koak erabiliz. Energia eolikoaren bidez Danimarkak behar duen elektrizitatearen %20, Espainiak behar duenaren %8 eta Alemaniaren beharren %6 lortzen da gaur egun. Batzordeak gaineratu duenez, potentzial handia daukan beste sektore bat biofuelarena da –materia organikoaren hondakinetatik eratorritako erregeia–. Batzordearen kalkuluen arabera, 2020an garraiorako behar izango den erregeiaren %14 eman lezake biofuelak.

### Nuklearren abantailak

Europako Batzordearen agiriak energia nuklearren garapenaren aldeko keinu garbia egiten du eta, hori ikusita, Euskal Herriko nahiz Europako ekologistak jendaurrean agertu dira aukera horren aurka egoteko dauzkaten arrazoiak plazaratzeko. Batzordearen agiriak batez ere energia iturri horren abantailak zehaztu eta nabarmentzen ditu; baina hori bai, energia nuklearren erabilera argi eta garbi

defendatu gabe, estatuak baitira gai horren gaineko eskumena daukatenak. Europako Batzordeko buruak “guk ez diegu herrialdeei agintzen energia nuklearrarekin nola jokatu behar duten” esan ondoren, adierazi zuen funtsezkoa dela ikatza bezalako iturri kutsatzaileagoekiko mendekotasuna gutxitzea. Batzordeburuak Europako Batzordea gai horretan agnostikoa dela baieztatu arren, egiaztatu zuen “ezinbestekoa den eztabaida” egiten lagundu nahi duela.

Europako Batzordeak azpimarratu du energia nuklearra dela CO<sub>2</sub> isurketa mailarik txikiena duten energia iturrietatik merkeenetakoa, gaur egun Europar Batasunean ekoizten den energia kontuan hartuta; eta baita kostu erlatibo egonkorrenetakoa dituen ere. Era berean, Batzordearen ustez erregeiaren prezio aldaketek energia nuklearrean baino eragin handiagoa daukate ikatz edo gasa erabiliz sortzen den energian, elektrizitatea sortzeko kostu osoaren oso zati txikia osatzen baitu uranioak. Energia nuklearrak abantaila horiek izan arren, arazoak ere sortzen ditu zentral nuklearrak suntsitzeko eta hondakinak kudeatzeko garaian.

### Energia nuklearra ez da errentagarria

Europar Batasunak energia nuklearrari eman dion babesak eztabaida berpiztu du Euskal Herrian eta Euskal Herriko kanpo. Foro Nuklear Espainiarrak zentral nuklear berriak eraiki behar direla defendatzen du, “berriztagarrien mugek eta kontsumo handiak energia nuklearren beharra sorrarazten baitute”. Gaine-

ra, “energia hau merkeagoa da eta, horrez gain, CO<sub>2</sub>rik isurtzen ez duenez, klima aldaketari aurre egiteko erabil daiteke”, adierazi du Foro Nuklearrak.

Mugimendu ekologista askok, ordea, nuklearren aldeko argudioak arbuiatu dituzte. Eguzki euskal mugimenduak energia nuklearra ez dela errentagarria azpimarratu du, zentral nuklearren jabe diren enpresa pribatuentzat baino ez direla errentagarriak, hondakinen kudeaketak duen kostua kanporatzen dutelako. Gaineratu du Espainiako Estatuaren kasuan etekinak neurri-gabeak eta pribatuak –Endesarenak, Iberdrolarenak...– diren bitartean, kostuak aurrekontu publikoaren kontura izaten direla. “Hondakin erradiaktiboen aseguru eta kudeaketa kostu guztiak beraien gain hartzea behartuz gero, enpresa pribatu bakar batek ere ez luke zentral nuklear bat irekiko”.

Greenpeace nazioarteko mugimenduak baieztatzen du energia nuklearra ez dela klima aldaketari aurre egiteko irtenbidea, energia horrek CO<sub>2</sub> isurtzen duelako. “Uranioaren fisioak ez du CO<sub>2</sub>rik isurtzen planta nuklearraren barruan dagoenean, baina bai ziklo nuklearraren zehar. Uranioa sortzeko prozesuan kontuan hartu behar dira produktu honen meatzaritza, uranioaren aberastea, erregeiaren fabrikazioa, zentral nuklearren eraikuntza, eta abar. Hainbat ikerketak frogatu du, beste edozein energia berriztagarriekin baino CO<sub>2</sub> gehiago isurtzen dela zentral nuklearretako energia ekoizpen unitateko”. n